ELGOIBAR - 791. zenb. - XVIII urtea - 2011-07-15

BARREN

TOKIKOM

# Badira 25 jaialdi



# DANOBAT

Makina-erreminta sektorean aitzindaria, Mondragon Taldeko partaide eta Elgoibarren kokatutako enpresak ondorengoak behar ditu:

**KOMERTZIAL ARLOKO TEKNIKARIA (Erref.0.500)**

Eskatuko da:

- Ingeniaritza teknikoa edo goi mailakoan formazioa.
- Hizkuntzak: ingeles eta euskara jakitea ahoz eta idatziz.
- Beste hizkuntza batzuk menperatzea baloratuko da.
- Bidaiatzeko prest egotea.
- Komertzial arlorako zalea izatea.
- Komunikatzeko gai izatea.

**INGENIARI ELEKTRONIKOA (Erref.0.501)**

Eskatuko da:

- Ingeniari teknikoa edo goi mailakoa elektronika arloan.
- Automatismoetan lan esperientzia: programazioa eta martxan jartzea
- PLC textu estrukturatuan lan esperientzia (Beckhoff,B&R,Codesys...)
- CNC-en ezagutza
- Hizkuntzak: ingeles eta euskara jakitea ahoz eta idatziz.
- Lantaldeetan jarduteko erraztasuna.
- Bidaiatzeko prest egotea

**PROIEKTUGILE MEKANIKOA (Erref.0.502)**

Eskatuko da:

- Ingeniaritza tekniko edo goi mailakoa
- Diseinatzaile mekanikoa 3Dtan.
- Esperientzia makinak diseinatzen.
- Hizkuntzak: ingeles eta euskara jakitea ahoz eta idatziz.
- Mekanizatua eta muntaketa lanetako ezagupenak eta esperientzia ere baloratuko dira.

**METROLOGIAko TEKNIKARIA (Erref.0.503)**

Eskatuko da:

- Goi mailako formazio zikloa fabrikazio mekanikoan/Ingeniaritza teknikoan mekanikako espezialitatearekin.
- Formazio zehatza metrologian eta/edo neurketa sistemak eta kontrolean.
- Software programen ezagupena eta/edo esperientzia eta neurketarako makina tridimensionalen erabilera.
- Prozesuen estatistika kontrolaren ezagupena eta Sigma 6 metodologia.
- Hizkuntzak: euskara eta ingelesa
- Informatika ezagupenak
- Bidaiatzeko prest egotea
- Iniziatiba eta izaera dinamikoa.

*Eskaintzen da: Antolakuntza industrial sendoaren parte izateko eta promozioako aukera.*
Interesatuek bidali curriculuma dagokion erreferentzia adieraziz hurrengo posta helbidera (Giza Baliabideetako departamendua. 28 PK.- 20870 ELGOIBAR) edo helbide elektroniko honetara **gb@danobat.com.**

DANOBATTALDEA



# ZEZEN-BIDE
## AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

***Ordenagailu bidez*** *teoria ikasteko gela berria* **!**






**ORDUTEGIA**

**10:00**etatik-**12:30**era
**15:00**etatik-**20:30**era

**5 EGUNEKO TEORIKAKO IKASTARO TRINKOAK**

- *Euskarazko eta gaztelerazko klaseak*
- *Credikutxarekin ordaintzeko erraztasunak*

**LEKUALDAKETA**
**San Frantzisko, 52 behea**
Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR





Iñigo Lariz

Orainguan txapelketen inguruko hausnarketa batekin natorkizu, Ainhoa. Izugarri ugaldu dira gure inguruan antolatzen diran lasterketak eta kirol ekintzak. Txapelketak beti egon izan dira, baina azken bost urtietan izan daben gorakadia itzela izan da. Atentzioa ematen ditt nola gaztetan talde kirolian arittu izan dan jendiak, hau laga eta gero, urte batzuren ondoren, bakarkako eta erresistentziako kiroletan buru belarri hasten dan. Gehixenguan aukeria lasteketa popularrak, mendi lasterketak, zikloturismua, triatloia… eta seguru kirolen bat aipatu gabe lagatzen ari naizela. Horrek guztixak ekarri dabana nolabaiteko masifikaziua izan da. Urrutira juan gabe herrixan bertan ikustia besterik ez dago zelako eskaintza dakagun: Nahaste Borrastea, San Migeleko igoera, San Pedrora igoera, Karakatera igoera, gaueko herri krosa, Jose Gurrutxaga krosa, BTT trabesia… eta orain, Azkarateko igoeria! Bi aukera gaiñera; bizikletan edo korrika. Ni korrikako lasteketan parte hartzekotan nabil, baiña badakat buruhauste txiki bat: zelan demontre igo zan David Slater 20:40ko denboran Txarridunatik Azkarateko gaiñera?.

**“Slaterren denbora ezinezkua jata, baiña ahaleginduko naiz hurbiltzen”**

Honekin guztixakin, askotan galdetzen diot buruari, zergatik eta zertarako lehiatu horrenbeste? Erantzuna ez da sinplia neretzat. Txapelketak erronka dira, eta pertsonek hauen bittartez funtzionatzen dogu. Eguneroko entrenamenduen fruituak jasotzeak sortzen daban satisfakziua modukorik ez dago, eta hori guztion eskura daguan zerbait da. Nire hurrengo erronka? Slaterren denbora ezinezkua jata, baiña ahaleginduko naiz hurbiltzen. Eta zuria, Ainhoa? Zein erronka dozu buruan?



Ainhoa Lendinez

Gai interesgarria, Iñi!

Nik uste dut, zuk diozun moduan, gizakiok berez dugula lehiarako joera hori. Eta are gehiago euskaldunok, apustuzale amorratuak izan gara-ta betidanik. Denoi gustatzen zaigu hobetzea, arlo guztietan gainera. Niri behintzat, ia bizitzako arlo guztietan gertatzen zait hori. Kirolean ez ezik, baita lanean, ikasketetan eta lagun artean ere. Eta horrek bere alde on eta txarrak ditu, noski. Lanean esaterako, dena zuzen esan nahi izatea, datu guztiak ondo lotu eta ematen saiatzea… Ona da, baina etxera iritsi edo lagunekin tabernan egon, eta oraindik lana buruan baldin badaukazu, malo! Gauza bera kirolarekin ere. Antzina kirola osasungarria zelako egiten zen. Baina orain, horrez gain, askok lehiatzeko egiten dute (dugu?). Esan dut ni neu ere denean onena ematen saiatzen naizela, eta egia da kirolean ere ez zaidala azkena izatea gustatzen. Baina oinak lurrean izatea komeni da beti. Polita da denborak hobetzea, distantzia luzeagoak edo gogorragoak egiteko gai garela ikustea, eta lortuz gero, bai, saria ikaragarria da. Baina esaterako, bizitzako gorabeherengatik, lanean edo kirolean, ohituta gauden maila eman ezin badugu, zer? Nola erantzuten du gure buruak? Askotan horrek beldurtzen nau, lehiatzeko eta hobetzeko nahi horrek kirolean, lanean zein gainerakoetan sortzen duen etsipen eta antsietateak.

**“Azkarateko gainean ikusiko dugu elkar, eta azkena ez izaten saiatuko naiz”**

Horregatik, zaila bada ere, ahalik eta onena ematen saiatzen naiz beti, baina unean unekoa biziz, gorputzari eta batez ere buruari entzunez. Etxean erakutsi digute hori. Eta nire hurrengo erronka? Puf, amets asko ditut buruan, Iñi… Hurrengo idatzian kontatuko dizkizut batzuk. Dena den, Azkarateko igoeran ikusiko dugu elkar. Eta azkena ez izaten saiatuko naiz, bai horixe!




## OHARRA

Iritsi dira oporrak Barreneko erredakziora. Hurrengo alea abuztuaren 23an jasoko duzue, San Bartolome bezpera egunean, hain zuzen ere.

Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 744 112
Faxa: ☎ 943 743 704
E-posta: *barren@elgoibarkoizarra.com*
Publizitatea: ☎ 943 743 704
E-posta: *barren.publi@elgoibarkoizarra.com*

**BARREN**ek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA Zaloa Arnaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz. INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

**Argitaratzailea:**

ELGOIBARKO IZARRA KULTUR ELKARTEA

**Laguntzaileak:**

ELGOIBARKO UDALA

MENDAROKO UDALA

DANOBATTALDEA

kutxa

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: *barren@elgoibarkoizarra.com*.

### 20 urte kirola egiten

Ekainean 20 urte bete dira Udalak 1991n Udalaren Kirol Zerbitzua sortu zuenetik. Zerbitzua, ondoren, Udal Kirol Patronatu bihurtu zen.

20 urteotan, kirolak leku garrantzitsua lortu du bizilagunen artean. 80ko hamarkadan, dozena erdi klub zeuden (Klub Deportiboa, Morkaiko, Lagun Taldea, Zubi-Ondo, Ego-Toki eta La Union); eta Eskola Kirola ere antolatuta zegoen, Udalaren koordinaziopean jarduten zuten hiru ikastetxeetako boluntarioei esker. 1988an, Olaizaga kiroldegia eraiki zutenean, eskubaloi, areto futbol, pilota, igeriketa, karate, triatloi eta urpekaritza klubak sortu ziren; 1993an atletismo kluba eta Pedrusko futbol taldea, eta gerora, arku-jaurtiketa, saskibaloia, wing-tsun, tenis eta judo taldeak eratu ziren; egun dauden 19 klubak sortu arte. Bestalde, bukatu berri den denboraldian, eskubaloi, areto futbol eta futbol klubetako senior mailetako jokalariek lortu dituzten emaitzak ikusita -kategoriaz igotzea-, esan dezakegu, talde horiek lan ezinhobea egiten ari direla; eta emaitza horiek, neurri batean, klub horien jarduera bultzatzeko, Patronatuak doan uzten dizkien lokalei eta egiten dituen ekarpenei esker lortu direla.

Kirol instalazioek bilakaera izugarria izan dute. Olaizaga katearen estreinako katebegia izan zen, eta Mintxetak atzean utzi zuen ordura arte herriaren arnas gunea zen Idotorbeko laua. Urtean zehar, herritar ugari joaten da Mintxetara kirola egitera, eta udan, igerilekuak topaleku nagusi bihurtzen dira.

Patronatuak 19 kirol jarduera baino gehiago egiteko aukera eskaintzen du, eta 90 talde eta mila ikasle baino gehiago aritzen dira hilero, jarduera horietan. Horrez gain, lau milatik gora bazkide ditu Patronatuak. Gutzi horri esker, Foru Aldundiak Udalen esparruko kirol gestio hoberenari ematen dion Gipuzkoa Kirolak saria eskuratu zuen 2009an Patronatuak.

Eskola kirola ere aldatuz joan da, eta, egun, beste hainbat udalerrirentzat erreferente bihurtu da. 300 ume inguruk hamabi kirol desberdin egiten dituzte ikasturtean, dozena erdi monitoreren gidaritzapean. Patronatuak azken bi hamarkadetan, ezin konta ahala txapelketa, lehiaketa eta kirol ikuskizun bultzatu ditu. Patronatua sortu eta lehendabiziko hamarkadan, Gabonetako Lagunarteko Txapelketa mugarri bilakatu zen; izan ere, bostehun gazte inguruk parte hartzen zuten. Aipatzekoak dira, bestalde, nazioarteko hainbat proba, hala nola, Euskal Herriko Txirrindulari Itzulia, Emakumeen Bira edo Nazioarteko Xake Txapelketa. Hori ez ezik, trial, kart eta parapente ikuskizunak ere antolatu izan dira; baita Futbol 7, herri kirol txapelketak eta beste hainbat lehiaketa. Elgoibarko herriak modu berezian bizi du kirola.

**Udal Kirol Patronatua**

### Folklore Jaialdiko partaideei gonbitea

Batzuk dantzan aritu izan gara, beste batzuk musika tresnaren bat jotzen, eszenatoki eta harmailak montatzen eta desmontatzen ere hainbat lagunek lan handia egin izan duzue, sarrerak saltzen, antolaketa lanetan, modu batera edo bestera parte hartzen... Zuon guztiontzat da honako gonbidapena, Elgoibarko Nazioarteko Folklore Jaialdian inoiz parte hartu duzuen guztiontzat: Datorren ostiralean 25. aldiz ospatuko dugu Nazioarteko Folklore Jaialdia Elgoibarren. Jaialdian parte hartu izan dugun gehienok ekitaldi honen oroitzapen ederrak ditugu, eta pentsatu dugu, datorren uztailaren 22an, berriz elkartu, lagunak eta jaialdi-kideak agurtu, eta aspaldiko kontuak berritzeko tarte bat hartzea. 18.00etan kiroldegian, 19.00etan udaletxean, eta 20.00etan merkatu plazan jarri ditugu deialdiak. Ehun lagun baino gehiagok eman dute izena dagoeneko, eta aspaldi ikusi gabekoak elkartzeko aukera ederra izango dugu. Pasa zaitez Haritz dantzari taldearen blogetik eta hor aurkituko duzu informazioa eta izena emateko zerrenda. *http://www.dantzan.com/blogak/haritz/jaialdia-25.* Datorren ostiralean elkar ikusiko dugu!

**Folklore Jaialdiko parte-hartzaileak**

### Idotorbeko jaiak

Eskutitz honen bidez eskerrak adierazi nahi dizkizuet: auzotar eta herritar guztiei, jaietan lan egin eta lagundu duzuen guztioi, eta baita jaietan bisitatu gaituzuenoi ere. Bereziki, eskerrak eman, Santi Arriolari eta bere lagun taldeari quad krosa antolatzeagatik. Baita ere, mus eta bolo txapelketak, dantza saioak, idi demak, umeen jolasak eta gainerako ekintzak antolatu dituzuenoi ere. Inor ahaztu gabe, eta eskerrak emanez, hurrengo urtera arte. Agur bero bat.

**Jesus Mari Azpiazu**

**Madalako zubiaren azpian zabor edukiontzi bat dago aspalditik:** “Badira lau aste inguru zabor edukiontzi bat errekara bota zutenetik, eta bada jasotzeko ordua. Erreka garbi mantendu behar dugu guztion artean, beraz, dagokionari zabor edukiontzi hori uretatik ateratzeko eskatzen diogu. Mila esker”.





**Sanlok txalo bero bat eman nahi die Carlos eta Pedro Ayestari eta Pili Pedrosari:** “Uztailaren 8koa izan zen zuen azken batzarra, eta Sanlo klubaren partez, gure eskerrik zintzoena eman nahi dizuegu. Mila esker zuzendaritzan egin duzuen lan guztiagatik. Era berean, animoak Cesar Arriolari lehendakari postuan, klubarentzat erronka politak datoz-eta”.

Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: *barren@elgoibarkoizarra.com* 943 744 112

---



ESKERTZA

## LUCIA HERRERO LOBO

2011ko uztailaren 7an hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



---



II. URTEURRENA

Andereño

## JESUSA IRASTORZA ITURRIAGA

*Zure senarrak, ahizta-nebak, senideek eta lagunek, ez zaitugu ahaztuko.*



*2009ko uztailaren 22an hil zen. Haren oroimenez II. urteurreneko meza izango da, barixakuan, uztailak 22, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian. Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.*



# ALFREDO ETXEBERRIA

ELGOIBARKO ALKATEA

## “Pilar ikastetxea izango da legealdiko proiekturik garrantzitsuena”

**Bi hilabete pasatu dira udal hauteskundeetatik, eta dagoeneko osatu du Alfredo Etxeberria alkateak datorren legealdirako Udal Gobernua. Alderdi guztiekin batu da Etxeberria, eta negoziaketak ondo joan direla azaldu du. Alderdi guztiei proposamen bera aurkeztu die alkateak. Gobernu batzordea EAJ, Bildu eta PSE-EEk osatu arren, batzorde buru guztiak EAJkoak izango dira eta bat, alderdi sozialistakoa. Alderdi sozialista Ongizate Sailaren buru izango da, alegia. Gobernu taldea lanari ekiteko gogoz eta ilusioz dagoela adierazi du Etxeberriak. Era berean, oporrez gozatzea opa die elgoibartarrei, eta San Bartolome jaietan elkar ikusiko dutela espero du.**

**Bi hilabete pasatu dira udal hauteskundeetatik. Nola gogoratzen duzu maiatzaren 22ko gau hura?**

Gipuzkoan aurreko hauteskundeetan baino zortzi mila boto gehiago atera eta hamahiru zinegotzi bakarrik galdu ditugun arren, erakundeetan indarra galdu dugula argi dago. Bildurekin beste argazki bat eratu da erakundeetan, baina Elgoibarren ez da eman Gipuzkoan gertatu den fenomeno bera, eta gu hazi egin gara. Elgoibarko datuak aztertzen baditugu, 1999an botoen %36 lortu genuen; 2007an, %28; eta 2011n, %39. Gaur egun Bildu denak 1999an %38 lortu zuen (orduan ez zegoen Aralar, beraz kopuru horren barruan dagoela ulertu behar dugu), 2007an %32, eta 2011n, %35. Hortaz, Aralarren %3a gehituta, 1999an bezala dago. Datuei begiratuta, Elgoibarren azken hamasei urteetan indarrak mantendu egin dira. 2007an zigortu egin gintuzten, baina azken datuekin esan daiteke elgoibartarrak pozik daudela lau urteotan egin dugun lanarekin, eta 2011n sarituak izan garela. Gure helburua zazpi edo zortzi zinegotzi eskuratzea zen, eta zortzigarrenetik 50 botora geratu gara, beraz, pozik egoteko moduan gaude.

**EAJk, baina, ez dauka orain arteko nagusitasunik Udalean, Bildurekin berdinduta baitago zinegotzi kopuruan. Nolako legealdia aurreikusten duzu?**

Egoera aurreko legealdiarena baino hobea da. Denok gaude ordezkatuta. Lehen zazpi zinegotzi geneuzkan, eta orain ere halaxe ditugu, beraz, gure ahalegina lehengo berbera izan beharko da. Aralar eta Ezker Batua desagertu dira, eta Bildu daukagu. Beste eszenatoki bat da, jokalari berriak ditugu, baina funtzionamendua berbera da. Aurrekoan bezala Legealdi Plana erabiliko dugu, eta espero dugu emaitzak ere berdinak izatea. Legealdi Plana osatzeko alderdi guztien hauteskunde programa hartu dut, eta 24 lan ildo atera ditugu, lau arlotan banatuta: Udal kudeaketa, hirigintza, pertsonen zerbitzuak, eta jarduera ekonomikoa eta hezkuntza.

**Nolakoak izan dira Udal Gobernua osatzeko negoziazioak?**

Hauteskundeetatik hona mezu bera zabaldu dugu, eta alderdi guztiei proposamen bera egin diegu. Alderdi guztiak barne izango dituen gobernua osatu nahi genuela esan dugu hasieratik, eta egonkortasunari garrantzi handia ematen diogula argi utzi dugu, bi arrazoirengatik: batetik, egoera ekonomikoak egonkortasuna bermatzera behartzen gaitu, eta bestetik, bakegintzan eta elkarbizitzan lan handia egin behar dugu legealdi honetan. Hortaz, alderdi guztiei adierazi diegu egonkortasuna bermatuko duen gobernua osatzea zela gure helburua. Horretarako, akordio batzuk lortzea derrigorrezkoa da, eta horrez gain, Hirigintza Plana eta Pilar ikastetxeko proiektuak sustatzea ezinbestekoa zen. Aurreko legealditik datozen proiektuak dira, eta oso aurreratuta daude, beraz, atzera pausorik ezin genuen onartu. Elgoibarren etorkizunerako proiektu estrategikoak dira, eta babesteaz gain, proiektu horiek bultzatu egin behar dira. Legealdi Plana izango da lanean hasteko lehen dokumentua, eta irailetik aurrera ekintzak zehaztuko ditugu, egonkortasuna bermatzeko. Garai berriak egonkortasunari garrantzia ematea eskatzen du.

> **“Elgoibar herri inplikatua da, eta jendeak daukan jarreraz oso harro nago”**

**Nolako Udal Gobernua osatu duzue?**

Legealdi Plana hartu dugu oinarri Udal Gobernua osatzeko, eta hori izan da negoziaketen ardatza. Gure proposamena denentzat berdina izan da, eta harreman onak izan ditugu denekin, baina erantzun desberdinak jaso ditugu. Alderdi Popularrak Bildurekin duen harremanagatik parte-hartzea mugatua dauka. Bildu elkarlanerako prest agertu da, baina lau urterako akordioa adosteko ez dira prest agertu. Guretzako, ardurak banatzeko, akordio batzuk adostu eta konpromiso batzuk onartzea ezinbestekoa zen. Alderdi Sozialistak mahai gainean jarri zizkigun bere eskaerak, eta Bilduk hartu ez dituen konpromisoak hartzeko prest agertu da.

**Lasarten gertatzen zenaren arabera, Ovidio Campellok alkatetzarako botoa Bilduri emango ziola entzun genuen inbestidura plenoaren bezperatan. Nola bizi izan zenituen une haiek?**

Errespetuz bizi izan nituen azken egun haiek. Ulertzekoa da batek modu batean jokatzen badu, besteak ere baduela gauza bera egiteko eskubidea, baina konfiantzaz ere bizi nuen, pertsonak ezagutzen ditudalako.

**Beste herri batzuetan arazo handiak izan dira EAJ eta PSE-EEren artean. Zein da Elgoibarko egoera?**

Gipuzkoako Udalak osatzerakoan ez dakit Bilduk, PSE-EEk eta EAJk bat egin duten herriren baten! Herri bakoitzean egoera diferentea dago, eta nola edo hala, alderdien arteko desberdintasun horiek agertu egin behar dira, eta Udalak eratzerakoan agertzen dira.

**Aurreko legealdia krisiak baldintzatu zuela adierazi duzu. Datorren legeladian ere krisiak izango du eraginik?**

Bai. Krisi egoera oraindik lehenengo lerroetan daukagu. Euskal Herrian zerga bidezko diru sarrerak egonkor daude, baina krisia gainditu dugula esateko sarrera horiek hazi egin behar dira, eta langabeziak behera egin behar du. Erakundeetatik esandakoaren arabera, datozen bi urteak ez dira errazak izango.

**Zein izango da legealdiko proiektu nagusia?**

Pilar ikastetxea izango dela uste dut. Aurreko legealditik dator, eta Foru Aldundiarekin hitzarmena adostuta dago. Beste proiektu batzuk ere badaude, Elgoibar Berdeaen barruan esate baterako, ibilgailu elektrikoen gaia daukagu; Anateusk eta Asmaola ere hazi dira fruituak ematen, eta estrategikoki Hirigintza Plana ere oso garrantzitsua izango da.

**Hitz batzuk esango dizkizut eta azaldu laburlabur zuen asmoak:**

**Etxebizitza:** Etxebizitza eskuragarriak egitea da gure asmoa, hau da, ordaindu daitekeena. Ahal dela alokairuzkoak ere egitea da gure nahia, baina hori Jaurlaritzarekin elkarlanean egin beharko genuke, alokairuzko etxeak egiteko lurzorua eskainiz. Hiri Antolakuntza Plan Orokorrak eskaintza hau bideratuko du.

**Kiroldegi berria eta frontoia:** Beharra badago, eta asko hitz egin daiteke proiektuari buruz, baina arazoa egoera ekonomikoa da. Ez dakit zenbat denbora beharko den proiektua gauzatzen asteko, baina ni baikorra naiz eta nahiko nuke legealdi honetan izatea. Biak batera ikusten ditut, biak direlako kirol azpiegiturak. Mintxetak ilusio handia egiten digu, eta aukera zabala eskaintzen du. Asmatzen badugu, Jaurlaritzarekin eta Foru Aldundiarekin elkarlanean, Mintxetak turismo mailan erreferente bihurtzeko aukera emango dio Elgoibarri. Urrun dagoela esango du norbaitek, baina hortxe dago, eta jende asko joaten da bertara.

**Plaza Txikia:** Lehenengo erabaki egin behar da Plaza Txikian zer egin nahi den. Eraikina goitik behera berritu behar da, eta hori ere egoera ekonomikoak baldintzatzen du. Lehentasunak ezarri behar dira.

**Gaztetxea eta gazte lokalak:** Udalaren helburua ez da gaur egun daukagun bezalako gaztetxea sustatzea. Zerbait sakonagoa eskaini behar zaie gazteei. Inplikazioa, elkarlana, ekintzailetasuna eta iniziatiba, ikasketekin, lanbidearekin, ezagutzarekin eta etorkizunarekin lotu beharra dago. Ametsak eta asmoak egi bihurtu al daitezke? Zein adin da egokiena? Helduen eta gazteen arteko harremana eta ezagutzaren transmisioa landu ere bai. Ezagutza patrimonioa da. Proiektuak zein forma eduki behar duen aztertze lanak egiten ari gara, parte-hartzean oinarrituz. Gazte lokalen erabilera arautzeko egin genuen bezala, hau da 2011. urterako dugun helburua. Egunerokotasunak eta gazteen erlazioan oinarritutako sare bat osatzea da nahia, eta horretarako ez dago gune baten beharrik. Sare horren bidez sortu daitezkeen nahiak eta ametsak betetzeko, erraztasunak ematen saiatu behar dugu eta honetarako dauden baliabideez gain, beharrezkoa izango da berriak horretara egokitzea eta beharbada azpiegitura bat propio horretarako bideratzea.

**Lau urte egin dituzu alkate. Egindako lanen artean zein izan da gustukoena?**

Obra bat aukeratzekotan, Madalakoa aukeratzen dut. Obra horrek asko aldatu du Elgoibar, eta hori izan da ikusgarriena. Beste alor batean, elgoibartarrek duten inplikazioa goraipatuko nuke. Elgoibar herri inplikatua eta ekintzailea da, eta jende konprometitu asko daukagu. Jendeak daukan jarreraz oso harro nago. Egindako lanarekin herritarrak gustura ikustea da niretzako onena, eta jendea gustura dagoela esango nuke.

**Eta, zer ez zenuke errepikatuko?**

Hartutako erabakiekin asmatzen duzun edo ez jakitea ez da erraza. Ez dut uste galdera honi erantzutea niri dagokidanik. Legealdi honetarako erronka handienetako bat bakegintza eta elkarbizitza sustatzea izango da. Gai honen garrantziaz kontzientziatu behar da jendea, bide horretatik onura handia etorriko delako.

**Aurpegi berri asko izango dituzu aldamenean. Nola ikusten duzu zure lantaldea?**

Jende gazte asko sartu da Udalean, eta ilusioz eta lanerako gogoz daude. Ilusioa eta inplikazioa dagoen momentutik, onartu dugun ardura eta erantzukizuna ulertzen badugu eta elkarlana uztartzen asmatzen badugu, gauzak ondo joango dira.

---

**Ainhoa Andonegi**



## UDAL GOBERNUA

Udal antolakuntza bost arlotan banatu dute. Batzordeak orain arteko berberak izango dira, baina aipatutako bost arlotan taldekatu dituzte. Batzorde bakoitzak bere zinegotzi-arduraduna izango du. Taldekatzearen helburua zinegotzien arteko batzarrak emankorragoak izatea izan da.

Alkatetza

- Komunikazioa, informazioa eta partaidetza alorra.
- Legealdi Plana eta jarraipen batzordea
- Jarduera ekonomikoa eta hezkuntza saila.

Udal kudeaketa

- Ogasun Saila (Bittori Zabala: EAJ)
- Barne Saila (Ane Beitia: EAJ)

Pertsonal arloa

- Ongizate Saila (Ovidio Campello: PSE-EE)
- Berdintasun Saila (Bittori Zabala: EAJ)
- Gazteria Saila (Eneko Etxeberria: EAJ)

Euskara eta Kultura

- Euskara (Ane Beitia: EAJ)
- Kultura Saila (Amaia Txurruka: EAJ)

Hirigintza eta landa ingurunea

- Hirigintza (Ricardo Garate: EAJ)
- Landa ingurunea (Joseba Arrizabalaga: EAJ)

## ARLO EZBERDINEN BATZORDEA

Kideak: EAJ 2, Bildu 2, PSE – EE 1 eta PP 1.

## GOBERNU BATZORDEA

Gobernu batzordea alkateak eta berak izendatutako bost zinegotzik osatzen dute. Guztira, sei lagunek osatuko dute beraz, Gobernu Batzordea, eta hau izango da erabaki organoa. Datorren legealdian, alkateak eta EAJko bi zinegotzik, Bilduko beste bik eta PSE-EEko batek osatuko dute.

*Ekainean...*

## JAIOTAKOAK



Aiala Nuñez Crespo
Ekainak 1
Angel eta Silvia



Aimar Vigara Vazquez
Ekainak 15
Alex eta Silvia



Maria Amaro Martin
Ekainak 15
Manuel eta Mari Jose



Beñat Intxausti Lasuen
Ekainak 21
Gorka eta Nerea



Martxel Narbaiza Garitagoitia Ekainak 3
Oier eta Larraitz



Sare Meabebasterretxea Sanz Ekainak 5
Unai eta Nerea



Unax Ansola Arrieta
Ekainak 27
Josu eta Oihana



Ander Gonzalez Osoro
Ekainak 22
Jose Luis eta Ana Mari



Lander Mir Rozas
Ekainak 13
Gorka eta Sheila

Andrei Pop
Ekainak 17
Liviu eta Ionela

Paula Lopez Garcia
Ekainak 9
Daniel eta Lourdes Sadio

Thiare
Ekainak 10
Mamadou eta Amy

Marwa Rachdi
Ekainak 15
Rachid eta Salima

Oihan Fernandez Leon
Ekainak 21
David eta Julene

## EZKONDUTAKOAK

- Unai Cabezon eta Claudia Sanchez Ekainak 1
- Jesus Tadeo eta Nerea Lariz Ekainak 3
- Eneko Loiola eta Oihana Odriozola Ekainak 4

## HILDAKOAK

Juana Zubizarreta Astigarraga • 88 urte • Ekainak 1
Manuela Ansola Ayerdi • 62 urte • Ekainak 1
Josefa Tome de Los Mozos • 83 urte • Ekainak 6
Begoña Badiola Juaristi • 63 urte • Ekainak 7
Paulina Lasa Enparan • 86 urte • Ekainak 12
Francisco Sarriugarte Garitaonaindia • 89 urte • Ekainak 15
Isidoro Muñoz Sanchez • 74 urte • Ekainak 17
Juani Izagirre Arrizabalaga • 72 urte • Ekainak 27
Eloy Monreal Saracho • 80 urte • Ekainak 27

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua
OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK

NORBANAKOEI
eta
KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak

Erietxe
zentruetan
zerbitzuak

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 / (Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56
(Sakelekoa) 635 756 295

Jaiotakoen atalean zure seme-alabaren erretratua jarri nahi baduzu, hilabeteko lehenengo astelehenerako ekarri behar duzu erretratua BARRENeko erredakziora edo *barren@elgoibarkoizarra.com* helbidera bidali.
Jaiotakoen argazkia jartzeagatik 3 euro kobratzen dugu.

# Sigma auzorako bide berria eta aparkalekua inauguratu zituzten eguaztenean

Aparkaleku berrian 41 autorentzako lekua dago



Eguaztenean inauguratu zuten Udaleko eta Eusko Jaurlaritzako agintariek Olasogain inguruneko bide berriaren lehenengo fasea. Obra horri esker, Sigma auzorako sarrera-irteera arinduko da, eta eskolako autobusarentzako maniobrak erraztuko dira. Sukia enpresak burutu ditu obrak, eta 813.000 euroko aurrekontua izan du. Udalak kostuaren %40a jarri du, eta gainerako %60a Eusko Jaurlaritzak finantzatu du.

Bide berriak sei metroko zabalera eta 150 metroko luzera dauka. Horrez gain, oinezkoentzako espaloiak jarri dituzte, bata bi metrokoa eta bestea, metro batekoa.

### Aparkaleku berria

Errepideaz gain, aparkaleku berria egin dute. 41 autorentzako lekua dauka aparkalekuak, eta eskolako autobusak buelta hartzeko 5x15 metroko gune bat egin dute. Aurrerantzean, beraz, Sigma auzoko umeek errazago izango dute autobuserako bidea, eta ez dute errepidea gurutzatu beharrik izango.

## Hainbat lagun atxilotu dituzte lapurretan egiteagatik

Ertzaintzak lau lagun atxilotu zituen martitzenean Arriaga industriguneko enpresa batean metalezko piezak ostea egotzita. Eusko Jaurlaritzako Barne Sailak jakinarazitakoaren arabera, tailerreko atea indarrez ireki eta barrura sartu ziren ustezko lapurrak. Zaharrenak 22 urte ditu, eta atxilotuetako bi adingabeak dira. Era berean, astelehen eguerdian bi lagun atxilotu zituzten Pedro Muguruza etorbidean. Jarrera susmagarria zuten bi lagun ikusi zituztela jakinarazi zuten bizilagunek, eta ertzainak bertaratu zirenean, lagun bat atxilotu zuten, baina besteak ihes egin zuen. Ondoren, lapurretan egiteko erabilitako ibilgailua aurkitu zuten, eta hainbat tresna elektroniko aurkitu zituzten barruan. Arratsaldeko 18:00ak aldera atxilotu zuten ihes egindako laguna.

## Globoflexia tailerraren ostean, magia eta karaokea Altzolan



Zubibai elkarteak antolatuta, globoflexia tailerra egin zuten joan zen asteburuan Altzolan. Ekitaldiak arrakasta handia izan zuen, eta antolatzaileek bi taldetan banatu behar izan zituzten partaideak. Ordubete pasatxo iraun zuen tailerrak, eta denetariko puzgarriak egin zituzten: arrainak, olagarroak, tximeletak...

Asteburu honetarako, magia eta karaokea antolatu dute. Migel magoak emango dio hasiera ekitaldiari, eta haren magiaz gozatu ostean, karaokea jarriko dute martxan. Sei mila kanta inguru egongo dira aukeran.

## Pertsonaia Arnaldo Otegi



Auzitegi Nazionalean berriro ari dira epaitzen Otegi 2005eko uztailean Jose Mari Sagardui *Gatza* euskal presoaren omenaldian parte hartzeagatik. Auzitegi Nazionalak aurreko epaiketa batean bi urteko espetxe zigorra eta hamasei urteko inhabilitazioarekin zigortu zuen Otegi, baina Auzitegi Gorenak baliogabetu egin zuen epai hori, Angela Murillok partzialtasunez jokatu zuelako. Orain, beste epaile batzuk ari dira epaitzen Otegi: Javier Gomez Bermudez, Nicolas Poveda eta Carmen Paloma Gonzalez. Fiskalak 18 hilabeteko espetxe zigorra eskatu du Otegirentzat, eta Ermuko Foroa eta Dignidad y Justicia herri akusazioek lau urte eta erdiko eta bost urteko espetxe zigorra eskatu dute hurrenez hurren.

## Irudia Lerun Txikiko haritza

EAEko Auzitegi Nagusiak atzera bota du Lerun Txiki baserria eta bere ingurua babesteko asmoz Okil Beltzak taldeak aurkeztutako errekurtsoa. Epaiaren arabera, plan partzialak ez du behar ingurumen eraginaren azterketarik, eremuko ubideekiko gutxieneko tarte legalak jasotzen dituelako, eta ondare kultural gisa katalogatu gabe zegoenez, Lerun txiki baserriak ez du merezi babesik. Okil Beltzak taldekoak ez dira harritu epai honekin: “Ez gaitu ustekabean harrapatu, baina Esperantza handirik izan ez arren, saiatu beharra geneukan”. Azkenik eskaera publikoa egin dio taldeak Udalari: Lerun Txiki baserriaren hondakinen alboan 200 urte inguruko haritza bizi da, eta haren “indultoa” eskatu dute. “Gure historiaren parte da zuhaitz hau, baita txori, mamorro, onddo eta goroldioen habitata ere. Begirune osoa zor diogu mirari natural honi”, gaineratu dute.



### Jubilatuen Eguneko bazkaria abuztuaren 28an

Jubilatuen Eguneko bazkaria abuztuaren 28an egingo dute aurten, eta dagoeneko zabalik dago izena emateko epea. Interesatuek jubilatuen egoitzan apuntatu daitezke, eta derrigorrezkoa da bazkide txartela erakustea. Bazkariak 7 euro balio ditu.

### Presoen aldeko bazkaria San Bartolome bezpera egunean

San Bartolome jaietan izan diren aldaketa batzuen ondorioz, presoen aldeko bazkaria San Bartolome Bezpera egunean izango da aurten, Txiki Egunean izan beharrean. Txartelak salgai daude dagoeneko Lanbroa, Iturri eta Jai Alai tabernetan, 18 eurotan.

### Javier Nuñez PPko zinegotziak ez du gobernu batzordean parte hartuko

Javier Nuñez PPko zinegotziak Gobernu Batzordean ez duela parte hartuko azaldu zuen atzo emandako prentsaurrekoan. Nuñezek esandakoaren arabera, EAJk jarritako baldintza ia guztiak onartzeko prest zegoen, baina ezin zuen “inondik inora” onartu Bilduren gobernua osatzea. Nuñezen esanetan, Bilduk ETAri desagertzeko eskatzen ez dion artean, ezingo dute elkarlanean jardun.

### Idotorbeko jaietako motoa zozketatu dute

Nerea Etxeberriari tokatu zaio San Pedro jaietako motoa. Zenbaki saritua 5.695 izan da.



# AURTENGOA 25. JAIALDIA

**1987. urtean egin zuten Elgoibarko Nazioarteko Folklore Jaialdiaren aldeko apustua estreinakoz, eta ordutik hutsik egin gabe, urtero, Elgoibar kolorez bete da uztailean. Ikastolako frontoi atarian sortu ziren lehen ilarak, eta gerora kiroldegira mugitu ziren. Makina bat izan dira Elgoibarko tabladutik pasatu diren taldeak; beste horrenbeste, Haritz Dantza Taldeak prestatutako bertako dantza eta arropa berriak. Denbora joan da dagoeneko, eta hala ere, lehenengoan bezala, dantzariei tximeletaz beteko zaie tripaldea oholtza handian lehen entsegua egin orduko. (Argazkiak Azkue).**

**Ainhoa Mendibil**



Haritz Dantza Taldeko dantzariek ondotxo dakite San Bartolome jaietako Soka Dantza indartzeko helburuz sortu zela taldea, baina 1987. urtetik, beste askoren artean, Nazioarteko Folklore Jaialdia ere izan du xede Haritzek.

Jose Ignacio Sarasuak eta Jon Lizarraldek akorduan daukate jaialdiarekin hasteko ideia nola bururatu zitzaien. Euskal Herriko beste dantza talde batzuekin harremanak sendotzeko ahaleginean, hainbat dantza talde ezagutzeko aukera izan zuten elgoibartarrek. Tartean zen Portugaleteko Laia Dantza Taldea; ordurako Portugaleten Nazioarteko Jaialdia antolatzen urteak zeramatzana. Elkar ezagutu zuten momentuan, Sarasuak kontatutakoaren arabera, Portugaletekoek segituan animatu nahi izan zituzten Elgoibarren ere antzerako jaialdi bat antolatzeko, eta hasieran ez ezik, urteek aurrera egin hala, elgoibartarrek beti jaso izan dute Portugaleteko dantzarien laguntza, bai dantzak ikasterako orduan, baita arropa eta taldeak lortzerakoan ere.

Era berean, Lasarten ere egiten zen garai hartan antzerako jaialdi bat eta hura ikusitakoan, Manolo Rementeria orduko kultura zinegotziarekin berba egin ostean hartu zuten Nazioarteko Folklore Jaialdiaren aldeko apustua egiteko erabakia. Hala ulertu baitzuten orduan antolaketa lanetan jardun zutenek: apustu modura, Sarasuaren arabera: "apustu bat egitea erabaki genuen; ondo irteten bazen ondo, eta bestela listo. Eta horrela hasi ginen".

## Istorioz betetako 25 jaialdi

Horrenbeste prestaketa orduk oroitzapenez bete dituzte 25 urte hauetan lanean jardun dutenen barruak, eta Lizarralde eta Sarasuarekin kontu kontari, anekdotek leku nabarmena daukate berriketaldian. Tartean, bertan egondako inork ahaztuko ez duen bat: argia joan zenekoa. Azken taldea dantzan ari zela argia joan zen kiroldegi guztian. Ez zegoen ezer egiterik. Garai hartan, baina, Angel Iriondok aurkezten zuen jaialdia eta beste aukerarik ez zegoela ikusita, kantuan hasi zen, mikrofono edo antzerako laguntzarik gabe. Urte hartan dantzariekin batera, kanpotik etorritako biolinjole bat ere gerturatu zen Iriondorengana, eta bien artean lagundu zioten ilunpean kiroldegitik irten behar izan zuen jende guztiari.

## Dantzariena baino, herriarena

Orain arte ere behar zena eskertu duten arren, urte guzti hauetan jaialdia ondo atera zedin lanean jardundakoei eskerrak ematen daramatza Haritz dantza taldeak urteurrenaren ospakizunekin hasi zirenetik gaur arteko egunak. Lizarraldek nabarmendu duenaren arabera, Folklore Jaialdia herriko gauza bat da; herritarrena. Izan ere, jaialdiak prestatzen edo laguntzen jardundako denak aipatzen

## “Jaialdiaren aldeko apustu bat egitea erabaki genuen, eta horrela hasi ginen”

**JOSE IGNACIO SARASUA**



hasiz gero, argi ikusten da dantzariek ez ezik, beste askok ere hartzen dutela parte. Tartean, musikariak nabarmendu dituzte Sarasuak eta Lizarraldek, herriko dultzainero eta txistulariak. Horiez gain baina, katekistak izan dira adibidez urtero-urtero jaialdiaren aurretik Jubilatuen Etxean kanpoko eta herriko dantzariei afaria eman dietenak, eta sortu ohi diren bestelako beharretarako ere, jaialdiak beti izan ditu atzean laguntzeko prest Udala alde batetik, eta Haritz Dantza Taldearen sortzaileak bestetik. Esan beharrik ez dago, 25 urte hauetan euren laguntza eskaini duten guztiak aipatuz gero, kabidarik ez legokela paperotan, baina horretarako, behar bezala eskertu ahal izateko, dantza taldeak luntx bat antolatu du jaialdiaren egunean, parte hartzaile eta laguntzaile guzti horiek batzeko asmotan.

### Liburu eta guzti

Orain arteko 25 jaialdiek lagatakoa jasota geratu dadin liburu bat kaleratu du Haritz Dantzari Taldeak. Edizio guztietako argazki eta kartelez gain, jaialdien antolaketan laguntzaile izan direnen testigantzak ere bildu dituzte liburuan.



### Aurrera begira

Horrelako urteurren batean, beti begiratu ohi zaio lehen aldi hari; are gehiago begiratuko diote Ikastolako frontoian bertan egon zirenek. Baina lehenengo jaialdi hartan egon zirenek, eta baita egon ez zirenek ere, denek begiratzen dute aurrera. Maialen Astigarraga dantza taldeko dantzari gazteak argi dauka beste 25 ere etorriko direla atzetik. Hala esan baitzien 25. urteurrenaren erakusketaren inaugurazioan beteranoenei: “50 ere beteko ditugu, seguru”. Jon Lizarraldek ordea, argi dauka ez direla helburu moduan jarri behar 50ak, baina etorriko direla. “Poliki-poliki aurrera eginda bete ditugu orain artekoak ere”.

## “Folklore jaialdia herriko gauza bat da; herritarrena”

**JON LIZARRALDE**

## 25. urteurrenaren erakusketa uztailaren 22ra arte egongo da ikusgai

Joan den barixakuan inauguratu zuten Haritz dantza taldeak antolatutako erakusketa. Jael Lizundia dantzari gaztearen eta Alfredo Etxeberria Elgoibarko alkatearen berbekin eman zitzaion hasiera ekitaldiari eta biek ere, eskerrak eman zizkietan urte guzti hauetan laguntzaile izandakoei. Erakusketan, besteak beste, orain arteko kartelak, argazkiak, erabilitako erropak eta jasotako oroigarriak ikusi daitezke, kultur etxean.



# Aitor Agirrebeña



## "Herriko gazteok gure egun propioa behar dugulakoan gaude"

**Gazteen Eguna izango da aurtengo berritasun nagusia Mendaroko Santa Ana jaietan. Hain zuzen ere, bihar izango da hori; Gazteen Egunak emango dieeta hasiera aurtengo Santa Ana jaiei. Aitor Agirrebeña, gazteria zinegotziarekin aritu da BARREN Gazteen Egunaren prestaketaren inguruan.**

Lehen aldiz Gazteen Eguna antolatu duzue jaietarako. Zer dela eta?

Herriko gazteok gure egun propioa behar dugulakoan gaude, gazteok gazte garen heinean, herriko koadrila ezberdinen artean adostutako egun osoko egitarau bat osatu genuen asanblada irekien bitartez. Bestalde, gazte koadrilen arteko harremanak indartzeko aukera eskaintzen du egun honek, urtean zehar ere egingo diren ekintzetan parte hartzeko.

Udaleko gazteria zinegotzia zara. Baina Udalak bakarrik antolatu du egun hau, ala gazteekin elkarlanean?

Ez, gazteria zinegotzia naizen aldetik, Udalak herriko gazteekin batera elkarlanean antolatu duen egun bat dela esan dezaket. Hasieran bilera ireki baterako deialdia egin genien herriko gazte koadrila guztiei. Gazteen erantzuna oso ona izan zela ikusita, argi ikusi genuen ezin zirela aurtengo Santa Anak Gazteen Egunik gabe geratu. Orduan, lehenengo bilera ireki hartatik, astero bildu gara zenbait astez, eta egun oso-









ko egitarau zabal bat osatu genuenean Santa Ana jaietako jai batzordean aurkeztu genuen.

**Koadrilen eguna antolatu izan da aurreko urteetan ere. Zein desberdintasun dago egun bat eta bestearen artean?**

Koadrila egunera Mendaron bizi den edozein joaten da -ez dago mugarik- eta Udalak antolatu ohi du egun osoa. Gazte Eguna aldiz, herriko gazte koadrila ezberdinen artean antolatu dugu beti ere Udalaren laguntzaz, eta nahi izan dugulako, edo beharra ikusi dugulako. Nahi izan dugulako antolatu dugu egun hori, denon iniziatibaz; hor dago aldea.

**Mendaron Santa Anak ospatzen direla esaten da bai, baina Santana eguna baino hamar egun lehenago ospatuko duzue zuek Gazteen Eguna. Zer dela eta horrenbeste presa?**

Hasiera batean Santa Ana egunetik gertu nahi genuen. Baina hala balitz astean zehar egin beharko litzateke eta gazte pila bat etorri gabe geratuko lirateke lan egiten dutelako. Beraz, hilaren 17an zahartzaroari omendaldia egiten zaionez, hori aprobetxatu eta larunbatean gazteona egitea erabaki genuen.

**Zer egin behar du Gazteen Egunean parte hartu nahi duen gazteak?**

Hurrengoan lehenago pentsatu! Kar, kar, kar. Esan nahi dut, parte hartzeko izena eman eta tiketak erosi behar zirenez, oraindik izena eman gabe dagoena berandu dabilela. Dagoeneko itxita dago izenematea baina hurrengo urtean ere, aurtengoak daraman martxa ikusita, errepikatuko dugu egun hau, beraz, berandu ibili diren horientzat, egongo da hurrengo aukera bat ere.



**Eta orain arte, berandu ibili ez, eta izena eman dutenak, nahikoa dira?**

Ba egia esan, espero ez genuen erantzuna jaso dugu. Zazpi koadrilak eman dute izena eta denera ehun gazte inguru izango gara.

**Bukatzeko, egindako lana ikusita eta egun hau Mendaron berria dela jakinda, orain artekoa nola baloratuko zenuke?**

Poliki-poliki, herriko gazteon artean ari da mugimendu bat sortzen eta hori igartzen da horrelako gauzak antolatzerako orduan. Larunbatekoa pauso txiki bat baino ez da; aurrerantzean sortuko dugunaren lehenengo harria jarriko dugu bihar. Irailean berriz batzeko asmoa daukagu; herriko gazte guztion artean urte osorako plangintza bat eratzea da gure asmoa. Azken finean, garai batean urtean zehar egiten ziren ekintza pila bat galtzen joan dira, eta horiek berreskuratzea nahi dugu. Badakigu gainera, orain arte bezala jarraituta, bide onean goazela. Uste dut egun hau antolatzeko prest agertu diren gazte guztiei eskerrak eta zorionak emateko moduan nagoela. Besterik ez, ondo pasa ditzagula jaiak, merezi dugu eta!

> **“Gazteen erantzuna oso ona izan zela ikusita, argi ikusi genuen ezin zirela aurtengo Santa Ana jaiak Gazteen Egunik gabe geratu”**















# SANTA ANA JAIAK 2011

**16 ZAPATUA**
***Gazteen Eguna***
12:00 Triki-bertso poteoa.
12:30 Paella txapelketaren hasiera.
14:30 Paella txapelketaren amaiera.
15:00 Herri Bazkaria txosnetan.
17:00 Gazte jokoak Herriko Enparantzan.
19:30etatik 21:00etara eta 23:00etatik 01:00etara
Erromeria Laiotz taldearekin.
01:00 DJ Joseba.

**17 DOMEKA**
***Zahartzaroari Omen Eguna***
10:30 Txistularien kalejira.
12:00 Meza nagusia frontoian.
Ondoren Euskal dantzak Mendaroko trikitixa taldearen eskutik.
13:00 Mendaroko gazteen arteko pilota jaialdia.
14:00 Bazkaria Aizpe Elkartean.
18:00 Dantzaldia Gelatxo taldearekin Azpilgoetan.



**22 BARIXAKUA**
22:30 Batuka eta dantza latinoen erakustaldia.

**23 ZAPATUA**
***Koadrilen Eguna***
12:00 Marmitako Lehiaketaren hasiera frontoian.
13:00 Kalejira Bizi Poza txaranga eta buruhandiekin.
13:00 Futbito txapelketaren finala.
14:00 Txupinazoa udaletxeko balkoitik.
14:30 Herri bazkaria.
16:30 Koadrilen arteko jolas ikusgarriak.
19:00 Kalejira Darbuka perkusio taldearekin.
19:30 Salbea Garagartzako elizan.
23:00 Gau dantzaldia Lisker taldearekin.
00:00 Playback lehiaketa.
Ondoren Gau dantzaldia Lisker taldearekin.
04:30 Diskoteka.

**24 DOMEKA**
***Haurren Eguna***
10:30 Txistularien kalejira.
11:00 Urrunetik gidatutako autoen erakustaldia Herriko Enparantzan.
11:00etatik 14:00etara eta 16:30etatik 18:00etara
Haur jolasak dohainik Ikastolako frontoian.
18:00 Haur Danborrada Bizi Poza txarangarekin.
19:00 Zezen txiki eta poniak.
19:00etatik 21:00etara Haur jolasak dohainik Ikastolako frontoian.
23:00 Gaubela taldearen kontzertua.

**25 ASTELEHENA**
***Santixao Eguna***
10:30 Txistularien kalejira.
11:00etatik 14:00etara Haur jolasak dohainik Ikastolako frontoian.
12:00 Kalejira Bizi Poza txarangarekin eta buruhandiekin.
12:30 Sagardoa eta txorizo pintxoak doan udaletxeko arkupeetan.
17:00 Puntako afizionatuen arteko pilota partiduak Goñati pilotalekuan.
17:30 Umeentzako herri kirolak Zurgai taldearekin Azpilgoetan.
19:00etatik 21:00era Haur jolasak dohainik ikastolako frontoian.
22:30 Nagusien danborrada.
00:15 Diskoteka DJ Ibairekin.

**26 MARTITZENA**
***Santa Ana Eguna***
10:30 Txistulariekin Santa Anara kalejira.
11:00 Meza Nagusia Santa Anan.
Ondoren Erromeria Ostolaza eta Andonegi trikitilariekin eta Lizaso eta Egaña bertsolariekin.
18:00 Herri Kirolak.
19:30 Erromeria.




Bellotza
Tel.: 943 756 252
620 978 454
Urteko 365 egunetan zabalik:
prentsa, loreak, opariak...
Deitu eta zure loreak eramango dizkizugu:
• Mendaroko ospitalera
• Tanatorio zerbitzua: koroak, erramuak...
• Ezkontzak: emaztegaiaren lore-sorta, eliza, autoa...
Mendaroko ospitalaren aurrean gaude


Mendaro ikastola
Kilimon,2
Tel.: 943 756 141
MENDARO IKASTOLAKO TXOKOLOREN PARTEZ ONDO PASA JAIAK!


MENDARO
1983
Mendaroko Udalak
Santana jai zoriontsuak opa dizkizue.


LANDA
ERRETEGIA
Jaiak
ondo pasatu !!
Garagarza, 32 · MENDARO
☎ 943 75 60 28


PAGOERROTA
iturgintza
• Iturgintza
• Gasa
• Berogailuak
• Sukalde eta bainuen proiektuak
• Igeltseritza
Herriko Enparantza, 10 behea (MENDARO)
Tel.: 943 756 044 - Faxa: 943 756 037 - Mugikorra: 659 334 323
www.pagoerrotaiturgintza.com
pagoerrota@pagoerrotaiturgintza.com

# ETXETIK KANPO JATEKO AUKERA UGARI JAIETAN



Jaietakoak egun bereziak izaten direla ezingo digu inork ukatu; eta horrelakoetan, sarri, etxetik kanpo jateko ohitura izan ohi dugu. Bateko eta besteko, gustuak gustu, denok asetzeko beste aukera daukagu Elgoibarren. Hona hemen horietako batzuk.


Gorbea

San Bartolome jaietarako egin ezazu zure erreserba!

Bestelako aukerak!
- Eguneko menua
- Menu berezia
- Karta
- Plater konbinatuak

TXIKI EGUNEKO MENUA:

Lehenengo platera:
URDAIAZPIKOA ETA ENTSALADA MISTOA.

Bigarren platera:
TXAHAL GISATUA EDO OILASKO ERREA.

POSTREA + EDARIA
(urteko ardoa, sagardoa eta ura)

20 €

Santa Ana, 10 behea - Elgoibar
Tel.: 943 254 232



Gabi jatetxea

Ondo pasa jaixak!



Proba ezazu aurtengo txapelketako pintxo irabazlea!

Egin erreserba telefonoz San Bartolome jaietarako

Nafarroa enparantza z/g • Tel.: 943 741 230

# Belaustegi Baserria JATETXEA

San Migel Gaina z/g
Tel. 943 74 31 02
www.belaustegi.com



**San Bartolomeetan menu berezia**

**39 € + BEZ (%8)**

**Edaria barne**







*Ondo pasa jaixak Belaustegiren partez!*

**Portxe-jardineko jaiman bazkaldu eta afaltzeko aukera.**
**Ostiral eta larunbatetan,**
**gaueko 22:00etatik aurrera kopak lorategian.**


Aterpe
TABERNA
Tel.: 943 742 595 - San Roke, 5
Ondo pasa jaiak!
Egin erreserba San Bartolome jaietarako!


LERUN
JATETXEA
Ordutegia
Astelehenetik ostiralera
7:00etatik aurrera
Larunbatetan
8:00etatik aurrera
Igandeetan
11:00etatik aurrera
Eguneko menuak · Asteburuetan bazkari eta afariak
• Wifi
• Ospakizunak
• Pintxoak enkarguz enpresetara eramaten ditugu
Netto
SAN BARTOLOMEETARAKO
MAHAIA ENKARGATU
NAHI BADUZU DEITU!
Zure neurrirako menua
prestatuko dizugu
Tel.: 943 743 196
Lerun, 6 (Netto Merkatalgunea)

# Sanbartolomeetako Gazteen Eguna iragartzeko bideoa grabatu du Gazte Asanbladak

## Uztailaren 31n amaituko da izena emateko epea

Gazte Asanbladako kideek San Bartolome jaietako Gazteen Eguneko promozio bideoa grabatu dute, iaz bezala. Abuztuaren 26an izango da aurten Gazteen Eguna, eta hainbat ekitaldi antolatu dituzte egun horretarako. Eguerdian paella lehiaketa egingo dute, eta talde bakoitzak bere paellera eraman beharko du. Arratsaldean, iaz hasitako bidetik, balsa jaitsiera egingo dute Deba ibaian eta gauean kontzertuak egongo dira Madalako parkean. Ekitaldietan izena emateko epea uztailaren 31n amaituko da, eta data horretatik kanpora ez da izenematerik onartuko. Interesatuek Lanbroa, Iturri edo Toletxe tabernetan eskuratu dezakete egitarauari buruzko informazio guztia. Bestalde, abuztuaren 20an ibaia garbitzeko hitzordua jarri dute, 10:00etan, Plaza Handian. Bideoa ikusteko, *www.elgoibarren.net.*



### Miren Vallejok eta Inazio Etxeberriak botako dute San Bartolome jaietako txupinazoa

Sanbartolomeetako dantza solteko txapelketak 75 urte egingo ditu aurten, eta denbora horretan bi elgoibartarrek soilik hartu izan dute parte, Miren Vallejok eta Inazio Etxeberriak, hain zuzen ere, lehenengo edizioan hartu zuten parte. Hori dela eta, aurten beraiek botako dute San Bartolome jaietako txupinazoa, Haritz dantza taldearen izenean. Abuztuaren 23an izango da, 13:00etan.

# Edu Arrillagak Dominikar Errepublikan eginiko 'Haiti amestuz' argazki sorta saritu dute



Hirugarren saria irabazi du Eduardo Arrillaga argazkilariak Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentziak (AECID) estreinakoz antolatu duen Juan Bartolomé argazki lehiaketan. *Haiti amestuz* izeneko argazki sortarekin lortu du saria baina Haitin beharrean, Dominikar Errepublikan ateratako erretratuak dira.

Haitin milaka hildako eta suntsipena eragin zituen azken lurrikararen eraginak bertatik bertara ezagutu eta argazkietan jaso nahi zituen Edu Arrillagak. Intermon Oxfam Gobernuz Kanpoko Erakundeak, baina, Haitira ez joateko gomendioa egin zion argazkilariari; une egokiena ez zela argudiatuz. Hortaz, Haitirekin mugan dagoen Dominikar Errepublikako El Cabral herrira joatea erabaki zuen Arrillagak, eta han egin zituen argazkiak. Bertan, dominikarrek errealismoz beterik antzeztu zuten Haitiko lurrikara, eta han atera zituen Arrillagak erretratuak.

### Madalako jaiak, uztailaren 22an eta 23an

Uztailaren 22an izango da Madalena Eguna, eta horren harira, hainbat ekitaldi antolatu dituzte Madalako tabernariek. Hilaren 22an hasiko dira jaiak, eta besteak beste, 80ko hamarkadako musika emanaldia eskainiko dute parkean. Zapatuan, berriz, kirolak hartuko du lekua goizez, eta arratsaldean kale antzerkia egingo dute, Egitarau osoa agendan ikus daiteke.

### Jaiotza, ezkontza eta heriotza inskripzioak euskaraz egin daitezke

Justizia Administrazioak Deban, Mutrikun, Mendaron, Elgoibarren eta Soraluzen jaiotza, ezkontza eta heriotza inskripzioak euskaraz egiteko aukera eskaintzen duela jakinarazi dute Eibarko Bake Epaitegitik.

# Gotzon Zulaikak bigarren urtez irabazi du Flysch Trail lasterketa, 23 urtez azpikoetan

### Lasterketako antolatzaileek Pako Iriondo omendu zuten

Gotzon Zulaika mendaroarrak irabazi du bigarren urtez Zumaiako Flysch Trail mendi lasterketa, 23 urtez azpikoetan. Korrikalari gazteak 59:28ko denbora behar izan zuen ibilbidea egiteko. Guztira 431 korrikalarik amaitu zuten proba, eta horien artean hiru, elgoibartarrak izan ziren: Xabier Bergaretxe 24. postuan sailkatu zen (2:40:51), Josu Mendikute 173. postuan (3:12:21), eta Ignacio Perez 315. postuan (3:33:30).





**Pako Iriondori omenaldia**

Mendiari lotutako kirolariak omentzea da urtero Flysch Trail lasterketako antolatzaileen helburuetako bat, eta aurtengo edizioan, Pako Irondo izan da omenduetako bat, Euskal Mendi Federazioko Ohorezko Presidentea izateagatik. Elgoibartarrak hunkituta jaso zuen zumaiarren errekonozimendua, eta lasterketaren antolatzaileak goraipatu zituen. Elgoibartarrarekin batera, Josune Bereziartu eta Rikar Otegi eskalatzaileak omendu zituzten.

## Gaur arratsaldean jokatu dituzte nesken pala txapelketako finalak Plaza Handian



10 Bai taldeak antolatutako nesken pala txapelketa iritsi da amaierara. Itziar Gerrikabeitia eta Mireia Huidobro, eta Lara Urain eta Itsaso Alguacil iritsi dira finalera, eta gaur arratsaldean jokatuko dute azken partida, Plaza Handian, iluntzeko 21:30etan. Ordubete lehenago, 20:00ak inguruan jokatuko da hirugarren eta laugarren postuak erabakiko dituen partida. Guztira hamar bikotek hartu dute parte txapelketan, bi taldetan banatuta. Ikusmin handia sortu du txapelketak, eta Plaza Handia jendez gainezka egon da zenbait egunetan. Antolatzaileak “pozik” geratu dira txapelketak izandako arrakastarekin eta partaideek erakutsitako inplikazioarekin.

**Tenis eta padel txapelketako finalak, bihar**

40-15 elkarteak antolatutako tenis eta padel txapelketako finalak bihar jokatu dituzte Mintxetan, 11:00etatik aurrera. Partidak amaitu ostean egingo dute sari banaketa.

**Areto futbolean jokatzeko probak gaur, kiroldegian**

Debabarrena klubak areto futbolean jokatzeko jubenil, kadete eta infantilak behar ditu. 93 eta 98 urteen artean jaio eta areto futbolean jokatzeko interesatuak kiroldegian agertu daitezke gaur, 19:00etan.

**Futbol 7 txapelketako finala, uztailaren 22an**

Bihar Futbol 7 txapelketako finalerdietako partidak jokatuko dituzte Mintxetan 11:00etan hasita, eta hilaren 22an jokatuko dira azken partidak. 19:00etan hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko norgehiagoka jokatuko dute, eta 20:00etan izango da final nagusia.

# Edu Uribek, Asier Arrietak eta Jose Luis Diezek Ehun Milak Ultratrail proban hartuko dute parte taldean

Korrikalariei ongi-etorria egingo diete gaur gauean Azkarate gainean

Asier Arrietak, Edu Uribek eta Jose Luis Diezek Ehun Milak Ultratrail mendi lasterketan parte hartuko dute. Jose Luis Diezek eta Edu Uribek iaz ere hartu zuten parte, baina lehenengoa bakarrik iritsi zen helmugara, 45 orduren ostean. Aurten Elgoibar-Morkaiko taldearen izenean eman dute izena, eta taldekako alorrean lehiatuko dira. 167 kilometroko luzera dauka lasterketak, eta Euskal Herrian egiten den probarik gogorrena da. Partaideek 48 ordu izango dituzte lasterketa amaitzeko.

Ultratraileko lasterkariak gaur gauean pasatuko dira Elgoibartik, eta ongi-etorria egingo diete Azkarate gainean. Morkaiko mendizale elkarteak trikiti festa antolatu du, eta bertaratzen diren guztien artean mendiko hamar motxila zozketatuko dituzte. 22:00ak aldera hasiko dira ekitaldiak.


Arg.: Aitor

**Azkaraterako igoera, uztailaren 23an**

Azkaraterako igoera antolatu dute uztailaren 23rako, Madalako jaien barruan. Bizikleta proba egingo dute 10:30ean, eta korrika, 11:00etan. Proba irabazteaz gain, beste erronka bat izango dute parte hartzaileek: David Slater atleta britainiarrak 1981. urtean ezarri zuen errekorra ontzea, alegia. Slaterrek hogei minutu eta berrogei segundotan egin zituen Madalatik Azkarateko gainera arte dauden 5,9 kilometroak.

**Kirol jardunaldiak antolatu dituzte biharko**

Fitnes 4x4 gimnasioak Kirol Jardunaldiak antolatu ditu biharko, eta 10:00etatik 15:00etara hainbat kirol mota praktikatzeko aukera egongo da Madalako parkean. Spinning maratoia egingo dute lehenengo, eta ondoren, body balance, eskrima, body combat eta dantza saioak eskainiko dituzte. Jarduera horiek guztiak doan izango dira, eta nahi duen orok hartu dezake parte.

## David Casillas irabazle, Jabier Ezenarroren omenezko proban



David Casillas kantabriarrak irabazi zuen, joan den domekan, Jabier Ezenarroren Oroimenezko Lasterketa, Mendaron. Tropelari aurrea hartuta iritsi ziren lau txirrindulari hemugara, eta esprintean irabazi zien iheskideei. Txirrindulariek 84,5 kilometroko ibilbideari aurre egin behar izan zioten eta bi bider pasa behar izan zuten Kalbarioko gainetik.

## Wing-Tsun ikastaro arrakastatsua eskaini dute kiroldegian



Elgoibarko eta kanpoko jende askok hartu zuen parte joan zen astean Wing-Tsun ikastaroan. Elgoibarko Wing-Tsun eskolak antolatuta, Stefan Crnko maisu austriarrak eman zuen ikastaroa, irakasleentzat eta ikasleentzat. Antolatzaileek eskerrak eman dizkie partaideei eta Ramon Mujikari, kiroldegia lagatzeagatik. Irailean ikastaro berriak antolatuko dituzte, eta ate irekien jardunaldia ere egingo dute Wing-Tsun kirola zer den azaltzeko.

## LANA

### ESKAERA

• Neska lanerako prest, garbiketa lanak egin eta umeak nahiz pertsona nagusiak zaintzeko.
☎ 648 603 029

• Gizonezkoa lan egiteko prest. Esperientzia handia eraikuntza lanetan eta lorezain bezala. Pertsona nagusiak zainduko lituzke. ☎ 628 874 887

• Emakumezkoa pertsona nagusiak zaintzeko edo sukalde laguntzaile moduan lan egiteko prest.
☎ 689 273 664

• Emakumea garbiketarako prest. ☎ 943 742 201

• Neska goizez, orduka, lan egiteko prest.
☎ 697 735 046

• Mutila lanerako prest. Biltegi lanetan, banatzaile lanetan, txofer... ☎ 622 634 238 (Manuel)

• Klase partikularrak ematen dira: Batxilergoko matematika, LH, DBH eta kontabilitatea. ☎ 666 042 710

• Neska abuztuan lan egiteko prest. Garbiketa lanak egin edo pertsona nagusiak zainduko lituzke.
☎ 618 163 061

### ESKAINTZA

• Sukaldari euskalduna behar da ogitartekoak eta plater konbinatuaj prestatzeko. Mendaroko taberna batean lan egiteko izango litzateke. ☎ 666 559 513

• Pertsona bat behar da pertsona nagusia zaindu eta etxeko lanak egiteko.
☎ 670 555 294

• Almazenean lan egiteko banatzailea behar da. Furgoneta enpresak jarriko du.
☎ 943 531 841 (deitu 09:00etatik 12:00ak bitartean)

## ETXEBIZITZAK

### ALOKAIRUA ETA SALMENTA

• Benidormeko erdigunean apartamentua alokairuan. Aire egokitua, erosoa eta auzokideentzako igerilekuarekin. ☎ 943 740 628

• Etxea alokagai Donostian abuztu osoan edo asteka. Tabakalera alboan. Bi logela, egongela, jangela, sukaldea eta Donostiako bista ederdun terraza ditu. Igogailua dauka. ☎ 655 723 678

• Bi logela alokagai Elgoibarren. Pisu partekatua, sukaldea eta erropa garbiketak barne.
☎ 679 843 332

• Aukera ezin hobea! Oso merkea! Pisua salgai Sigman. Premiazkoa, pertsona nagusiak residentziara joan beharra duelako. Berogailu sistema eta berrikuntza askorekin. ☎ 699 953 021

• 3 logelako etxea alokairuan Gasteizen, Unibertsitatetik bost minutura. ☎ 628 232 931

• Etxea salgai herri erdian. Prezio onean. Fatxada, teilatua eta igogailu berriak. Dena kanpoaldera (91m$^2$). Aukeran garaje itxia Plaza Txikian.
☎ 609 141 312

• Bi gelako apartamentua salgai kiroldegi ondoko etxe berrietan. Erosoa, argitsua, oso polita. Garajea aukeran. ☎ 675 007 661

• Gizonezkoak pisua alokatuko luke Elgoibarren.
☎ 620 664 454

• Pisua alokatuko nuke.
☎ 689 563 351

• Etxea hartuko nuke alokairuan.
☎ 697 735 046

• Apartamentua alokatzen da Santo Domingo de la Calzadan (Errioxa), abuztuan. Prezio onean.
☎ 941 341 437 / 676 882 373 ( Esther)

## GARAJEAK ETA LOKALAK

• Gazteentzako lokala alokagai. ☎ 651 631 253

• Garaje itxia salgai Plaza Txiki inguruan.
☎ 628 521 579

• Autokarabanentzat garaje itxiak alokatzen dira Mendaron. Kurutzgain industrigunean. Komuna eta argi indarra dute.
☎ 630 941 241

• Gazteentzako lokala alokagai, araudi berria betetzen du. 125 m$^2$ ditu gutxi gorabehera.
☎ 649 446 716 (Loli)

## BESTELAKOAK

• Tenis raketa galdu dut Mintxetako igerilekuan. Wilson markakoa da, Roger Federer. Telmo izena jartzen du. Aurkitu duenak, laga dezala mesedez Mintxetako harreran.



V. URTEURRENA

# IÑAKI CONTRERAS DE CASTRO

2006ko uztailaren 20an hil zen.

*Ez agurrik,*
*ez adiorik,*
*gero arte bakarrik.*

*Elgoibarko koadrila*





ESKERTZA

# JAVIER UNAMUNZAGA UNAMUNZAGA

2011ko uztailaren 11n hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





ESKERTZA

# TERE LODOSO BERGARETXE

2011ko uztailaren 13an hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





• Zorionak, **Mikel,** hurrengo larunbatean 2 urte beteko dituzulako Bi muxu potolo, etxekoen partez.



• Zorionak, **txapeldun!** Segi orain arte bezain alai. Familiako guztien partez.



• Zorionak, **Nerea,** uztailaren 29an 6 urte egingo dituzulako. Etxekoen, eta bereziki, Ander, Leire, Paula eta Sararen partez.



• Zorionak, **Intza**, uztailaren 30ean 4 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat, bereziki Malen, Naia, Haizea eta Harrieten partez.



• Zorionak **Estitxuri** hilaren 28an 2 urte beteko dituelako. Familia osoaren partez. Bereziki Ikerren eta Unaxen partez.



• Zorionak, **Pello!** Lau kandela emendatzeko prest? Txokomarrubizko mila muxu maite zaitugun guztion partez. Ondo pasa, pirata!



• Gure etxeko txikixa ya ez da hain txikixa: Zorionak eta muxu potolo bat, **Ibon**, bederatzigarren urtebetetzian, etxekuen partez.



• Zorionak, **Helene,** uztailaren 10ean 12 urte bete zenituelako. Familiakoek asko maite zaitu. Egun zoriontsua igaro, maitea.



• Zorionak, **Naiara,** abuztuaren 17an zure lehen urtetxoa egingo duzulako. Gurasoen-Jorge, Castro eta senideen partez.



• Zorionak, **Susana,** gaur zure eguna delako. Gurasoen, osabaizeben eta lagunen partez.



• Zorionak, **Andoni!** Amatxo, Jon eta familiakoen partez, muxu pila bat.



• Zorionak, **Naiara**, uztailaren 3an 3 urte egin zenituelako. Gurasoen partez.



• Zorionak, **Aritz**, gaur 8 urte egin dituzulako. Etxekoen partez.



• Zorionak, **Asier,** hilaren 22an 2 urte egingo dituzulako. Elgoibarko familiakoen, eta bereziki, Ihintza eta Aioraren partez.



• Zorionak, **Ibai**, zure seigarren urtebetetzean. Muxu handi bat familiakoen eta bereziki, Naroaren partez.



• Zorionak, **Lier!** Astearten urtebete! Familiakoen partez.



• Zorionak, **Nahia!** Egin duzu lehen urtetxoa, txapelduna! Familiakoen, eta bereziki, Naroaren partez.



• Zorionak, **Leire,** uztailaren 26an urte bat egingo duzulako. Muxu handi bat etxekoen partez.



• Zorionak, gure **txapeldunari,** 6 urte egin dituelako. Baita etxeko **bihurritxoei** ere, 2 urte egingo dituztelako.



• Zorionak, **Axular**, hilaren 28an 3 urte egingo dituzulako. Aitatxo eta amatxoren partez.



• Zorionak, **amama Josefina eta June**, astelehenean zuen eguna izango delako. Muxu handi bana, etxeko guztion partez



• Zorionak, **Luken eta amatxo,** uztailaren 31n urteak egingo dituzuelako. Bereziki Alaine eta aitatxoren partez.



• Zorionak, **bikote,** zuen 3. urtebetzean! Muxu potolo bana, batez ere Vega eta Luciaren partez.



• Zorionak, **Xabi!** Muxu handi bat etxekoen partez.



• Zorionak, **Urtzi eta Haizea**, uztailaren 29an 5 urte handi egingo dituzuelako! Muxu handi bat etxekoen, eta bereziki, amamaren partez.



• Etapa txikixek osatzen dabe bidia. Zorionak, eta eskerrik asko, **pareja.**



• Zorionak, **Eneko eta Ines**, hilaren 23an ezkonduko zaretelako. Etxekoen partez.

## 15 barixakua

### Kirola

22:00 **Ultratrail lasterketari ongi-etorria**
Azkarate gainean.

## 16 zapatua

### Kirola

10:00 **Kirol jardunaldiak**
Madalan.

### Aisialdia

22:30 **Magia eta karaokea**
Zubibaik antolatuta, Altzolako frontoian.

## 22 barixakua

### Dantza

22:30 **Folklore Jaialdia**
Haritz dantzari taldeak antolatuta, Olaizaga kiroldegian.

## 25 astelehena

### Sargoateko erromeria

11:00 **Meza**
12:00 **Salda eta txorizoa**
12:30 **Bertsolariak eta trikitilariak**
13:00 **Auzokoen zaldi lasterketa.**



Uztailaren 22an udako festa ludotekan, 17:00etatik 19:00etara. Merendola, udan zehar ateratako erretratuen erakusketa, talde jolasak...

## MADALAKO JAIAK

**Uztailak 22, barixakua**
10:50 Kanpai-jotzea
11:00 Meza nagusia
Ondoren, txapliguak eta kalejira
17:00 San Lazaro egoitzan, merienda
19:00 Pintxo-Madala
19:00 80ko hamarkadako musika, Madalako parkean.

**Uztailak 23, zapatua**
10:30 Azkaraterako igoera bizikletan
11:00 Azkaratera igoera korrika
12:30 Sari banaketa
Ondoren, txapliguak eta kalejira
17:00 Mus eta xake txapelketak
17:00 Kale antzerkia *Olinpikas 2012*

## SALLOBENTEKO JAIAK

**Abuztuak 5, barixakua**
19:00 Kanpai-jotzea
Ondoren, meza
20:00 Bakailao jana
Afalostean, Lizaso eta Peñagarikano bertsolariak
23:00 Bolo saioak
23:30 Erromeria

**Abuztuak 6, zapatua**
16:30 Haur jolasak
Ondoren, txokolate jana
22:30 Bolo saioak
23:00 Erromeria
Gauerdian, bolo txapelketa

**Abuztuak 7, domeka**
11:00 Meza
Ondoren, salda eta txorizoa
14:30 Bazkaria
18:00 Herri kirolak
Ondoren, zezenak
20:00 Emakumeen bolo txapelketa
22:00 Bolo saioa
23:00 Erromeria

**Abuztuak 10, eguaztena**
11:00 Meza
Ondoren, salda eta txorizoa
12:30 Pilota partidak

## SANTUMOTZ JAIAK

**Abuztuak 7, domeka**
11:00 Meza, Santumotz lautadan
Ondoren, salda eta txorizoa
Segidan, Peñagarikano eta Mendiluze bertsolariak
12:30 Harri jasotzaileak
Tarteka, Laja eta Lutxurdio trikitilariak
14:30 Bazkaria, San Pedro jatetxean. Izena emateko: 943 741 010
Ondoren, bertsolariak, eta iluntzera arte, erromeria

## Aire libreko zinea, Plaza Handian

**«No controles»**
15, barixakua: 22:30

**«Bienvenidos al sur»**
23, zapatua: 22:30

**«Para que sirve un oso?»**
29, barixakua: 22:30

**«Rio»**
16, zapatua: 22:30

**«Narnia, la travesia del viajero»**
24, domeka: 22:30

**«Bebes»**
30, zapatua: 22:30

## FARMAZIAK eta OKINDEGIAK

**UZTAILA**
15 Etxeberria *(Santa Ana)*
16 Ibañez
Goizez, Etxeberria *(Errosario)*
**17** Ibañez
18 Yudego
19 Zabaleta
20 Etxeberria *(Errosario)*
21 Ibañez
22 Garitaonandia-Bidasolo
23 Etxeberria *(Santa Ana)*
**24** Etxeberria *(Santa Ana)*
**25** Zabaleta
26 Yudego
27 Zabaleta
28 Etxeberria *(Errosario)*
29 Zabaleta
30 Garitaonandia-Bidasolo
**31** Garitaonandia-Bidasolo

**ABUZTUA**
1 Etxeberria *(Santa Ana)*
2 Fernandez
3 Garitaonandia-Bidasolo
4 Zabaleta
5 Etxeberria *(Errosario)*
6 Zabaleta
Goizez, Etxeberria *(S.A.)*
**7** Zabaleta
8 Garitaonandia-Bidasolo
9 Etxeberria *(Errosario)*
10 Fernandez
11 Garitaonandia-Bidasolo
12 Zabaleta
13 Etxeberria *(Errosario)*
**14** Etxeberria *(Errosario)*
**15** Etxeberria *(Errosario)*
16 Yudego
17 Etxeberria *(Errosario)*
18 Fernandez
19 Yudego
20 Ibañez
Goizez, Yudego
**21** Ibañez
22 Etxeberria *(Errosario)*
23 Etxeberria *(Santa Ana)*
**24** Zabaleta
25 Ibañez
26 Fernandez
27 Yudego
**28** Yudego
29 Garitaonandia-Bidasolo
30 Etxeberria *(Errosario)*
31 Ibañez

**IRAILA**
1 Garitaonandia-Bidasolo
2 txeberria *(Santa Ana)*
3 Fernandez
Goizez, Etxeberria *(Errosario)*
**4** Fernandez
5 Yudego
6 Zabaleta
7 Etxeberria *(Errosario)*
8 Ibañez
9 Garitaonandia-Bidasolo

**Okindegiak uztaila**
17 domeka IBARRENEA
24 domeka EIZAGIRRE
25 astelehena FOTERO
31 astelehena EIZAGIRRE

**Okindegiak abuztua**
24 eguaztena EIZAGIRRE
28 domeka EIZAGIRRE



# EROSI AL DUZU ASTO-KAKA JOKOAREN TXARTELIK?

3 euro baino ez duzu ordaindu behar, eta 2.000 euro jaso ditzakezu bueltan!
Eta, gainera, BARRENi lagunduko diozu!

**Txartelak erosteko:**

- Etorri: Elgoibarko Izarrara edo BARRENera
- Deitu: 943 74 16 26 telefonora (Amaia edo Nerea)
- Idatzi: *administrazioa@elgoibarkoizarra.com*

**Erosi, denak gastatu aurretik!**

ELGOIBARKO IZARRA KULTUR ELKARTEA
http://elgoibarkoizarra.com/astokaka



**Makina erremintan dihardun DOIMAK S.A. enpresa elgoibartarrak honako lan postuak betetzeko deialdia luzatzen du:**

Doimak

- LEHEN MAILAKO OFIZIALEN KATEGORIA DUEN ERREKTIFIKATZAILEA.
- LEHEN MAILAKO OFIZIALEN KATEGORIA DUEN FRESATZAILEA.
- LEHEN MAILAKO OFIZIALEN KATEGORIA DUEN MUNTATZAILEAK. (INGELESEKO EZAGUTZAK AINTZAT HARTUKO DIRA)

Interesdunak bidali zuen kurrikulumak *adminis@doimak.es* helbide elektronikora edo 943 740 988 (Tomas) telefonora deitu





# Sargoateko erromeria

UZTAILAK 25, ASTELEHENA

11:00 Meza.
12:00 Salda eta txorizoa.
12:30 Bertsolariak eta trikitilariak.
13:00 Auzokoen zaldi-lasterketa.

**ANTOLATZAILEAK:** Sallobenteko Jai Batzordea • Debemen · Elgoibarko Izarra · Elgoibarko Udala















## ZURE ETXEBIZITZA BERRIA ELGOIBARREN

**UBITARTE BIZIGUNEA**

- 32 Etxebizitza eta garaje berri ingurune paregabean
- Etxebizitza zure neurrira egokitzeko aukera
- Duplex atikoak solariumarekin
- Behe solairuak terraza handi eta txokoekin
- Diseinuzko sukalde ekipatuak
- Lehen salmentetarako aukera bereziak

943 744 303
www.ubitarte.com

SAN BARTOLOME 16.NEAN GAUDE. ETOR ZAITEZ!